

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

OSASUN SAILA

5641

IRAGARKIA, Donostia / San Sebastián farmazia-eskualdean (Gipuzkoa) dagoen farmazia-bulego bat eskualdatzeko proposamen bat dagoela jakinaraztekoa.

Farmaziak eskualdatzeko jardunbidea finkatzen duen martxoaren 16ko 166/1999 Dekretuaren 4. artikulua xedatutakoaren ildotik, jakinarazten da Donostia / San Sebastián farmazia-eskualdean (Gipuzkoa) farmazia-bulego bat eskualdatzeko proposamen bat dagoela.

Eskuratzeko interesa duten botikariek leku hauetan lortu ahal izango dituzte espedienteko argibideak, farmaziari, prezioari eta eskualdatzeko gainerako xehetasunei buruzkoak:

- Osasun Saila, Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz.
- Osasun Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritza, Olagibel kalea 38, Vitoria-Gasteiz.
- Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza, Antso Jakitunaren kalea 35, Donostia.
- Osasun Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza, Rekalde zumarkalea 39, Bilbao.

Farmazia-bulegoa eskuratzeko eskabideak aurkezteko epea bi hilekoa izango da, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera.

Farmazia-bulegoa eskuratzeko eskabideei 256,41 euroko tasa ezarriko zaie.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 19a.

Farmaziako zuzendaria,
JON IÑAKI BETOLAZA SAN MIGUEL.